

## Homilia urratsak, Ebanjelioaren ildotik

Urteko 4. igandea

2010 Urtarrilak 31 (C urtea)

Patxi Otamendi

Jeremias 1, 4-5. 17-19

1 Korintiarrei 12, 31-13,13

Lukas 4, 21-30

- «*Gaur bete da profetia hau entzuten didazuenontzat*». Entzutea ekintza nahiko pasiboa da. Kanpotik sortutako soinu edo hitzaz ohartzea delako. Jesusen arabera, Jainkoaren asmoak ezagutu eta bereganatu aurretik “entzun” egin behar da. Beste norbaitek horren berri ematen digulako. Oso antzeko zioen S. Paulok: “sinesmena entzutetik dator” (Erromatarrei 10:17). Entzun... eta entzundakoaren arabera haratago joateko jarreran ezagutuko du “jakiteko” prest dagoenak.

Profetiak “bete” egin direla esatean adierazi nahi zuen “betetze bidean” zeudela. Gero eta nabariago izango zela.

- Herritarrak Jesusengandik entzuten ari zirena mirestetik arbuiatzera pasatzen dira esaldi gutxi batzutan. Zergatik? Esaten ari zaiena eurek kontrolatzen zutenetik haratago doalako. Nahiz eta hizlaria herrikidea izan, euren “ziurtasun maila” kolokan sentitzen dute. Beraiek menderatzen ez zituzten esparru edo aldarrikapen berriak zabaltzen hasi zaie. Orain arte beste herri batzutan aritu da horretan. Orain, ordea, herrian bertan berresten ditu kanpoan egin eta esandakoak.

Elkar ezin ulertua latza dela adierazteko, Markosek zioen Jesusek bere herrian soilik mirakulu pare bat bakarra gauzatu egin ahal zuela. Lukasek beste eran azaltzen du: Jesusek berak antzeman du jendeak ez diola Kafarnaunen egindako miragarri ahalmenik ikusten. Eta ironikoki esaten die profeta bat ez dela bere jaioterrian onartua izaten.

- Erabat aurka jarri direnean herritik kanporatu nahian amildegirantz bultzaka eramaten dute. Zuzenki hil egin nahi dute, sasiprofetekin egiten zen bezala.

Gerora ebanjelioan antzeko aldaketa kontatuko da: hasierako une arrakastatsuek okertu egiten dira eta aurkarien kopurua handitu. Zergatik? Judutar ez direnen alde egin eta jentilen herrialdeetara hurbiltzen delako.

Berdin Apostoluen Egintzetan: apostolu eta jarraitzaileak hasieran ongi hartuak dira Jerusalem, baina jentilengana bideratzen direnean judutarrak aurka jartzen zaizkie.

Beraz, pasarte honetan Lukasek bere ebanjelioan eta Apostoluen Egintzetan nabarmentzen den prozesua aurreratzen digu. 80ko hamarkadan Lukasen kristau taldeek lehia bizia izan zuten judaismoaren buruzagi berritzaileekin. Judutarrek uko egiten zioten kristau mugimenduari, eta honek jentilen artean lan egin eta hedatzea ekarri zuen.

- Judutarrei gertatutakoa –Nazaretakoak, ala orokorki besteei- gaur egun ere suertatzen da: norberak egiazkotzat dituen atalei tinko lotua geratu nahi du. Beste edonork edo edozerk tinkotasun hori gutxitu ezker, aurkako erantzuna jasotzen du. Egiaren ataletik haratago joatea berrikuntza baino mehatxutzat hartua izaten da. Eta horretan dabilenari erantzun zorrotza ematen zaio. Lukasek judaismoarekin zituen harremanetan ezagututako jarrera kristau elkarte barnean ere gertatu zen.

Kontakizun honen azpian dagoen mezua arrunta da: Ebanjelioak dakarren bihotz-beratasuna zure egin eta bizitzen ahalegintzen bazara, Jainkoaren “espíritu bizia” zurekin duzu. Baina aldi berean ez zaizu alboratua edo jazarria izatea faltako. Maisuari gertatutakoa jarraitzaileari gerta dakioko.